



Ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik minbiziari buruzko dibulgazioa, formazioa eta akonpainamendua eskaintzen duen elkarte da **Iñurri**. Gaixotasunaren ikuspuntu zabalago bat eskaintzen du, gaia sozialki normalizatzeko eta minbiziaren inguruko mito eta tabuak desagerrarazteko.

17 IÑURRI Elkartearekin solasean:

—Zerk sortzen du minbizia?
—Alfa izeneko zelula batzuk, etengabe hazi nahi dutenak.
—Altxa zelulak?
—Alfa.
—Eta noraino nahi dute ba altxa Alfa zelulek?
—Ba pentsa, minbizia sortzen duten zelulen garaipena heriotza da.
—Baina orduan... beraiek ere hiltzen dira, ezta?

—Bai ba!
—Nola liteke?
—Ez dutelako elkarlanean pentsatzen.
—Guri ere sarri ahazten zaigu hori.
—Bai, eta gauza bera gertatuko zaigu norbera hazten tematuz gero.
—Etengabeko hazkuntza txikizioa da.
—Hobe txikitasunean gauza handiak eraiki, inurriek bezala.



18 (MIN)BIZI

Musika: Xabier Zabala
Hitzak: Oihana Iguaran Barandiaran
Ahotsa: Idoia Asurmendi

Izan inurri, txikitik eragin;
izan taldean, eta handi egin.
Zama ezin bada altxa buruz buru
denon artean eramango dugu.
Zatoz zirrien inurritegira!

Izan minkide, eta bidelagun;
elkar zaintzeko hitza eman dezagun.
Zulo sakon bat denean gorputza
Sendagai da zu hor egote hutsa.
Zatoz kilimen inurritegira!

...

Izan biziprest ta hil arte bizi
Bizi, (min)bizi, tabuak erauzi.
Pausoka goaz beldurretarantza
bizitzarekin egiteko dantza.
Ongi etorri inurritegira!
Inurritegira!